

INVISIBLE BEAUTY

Alzheimerra duten pertsonei zuzendutako proiektu soziala



Komunikazioa
eta informazioa



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
Inklusioa

Alzheimerra duten pertsonei zuzendutako proiektu soziala: INVISIBLE BEAUTY

Proiektu honetan, bi lan ildo garatzen dira:

1. TAILERREN ARDATZ NAGUSIA: alzheimerra duten pertsonekin egindako psikoestimulazio kognitiboko tailerrak dira, eta haien gaitasun fisiko, musikal eta emozionalak estimulatzea dute helburu, ahalik eta luzaroen mantentzeko eta gaixotasunaren endekapen ondorioak atzeratzeko. Jarduerak informazio berria eskaintzen die AFAGIko espezialistei, eta haiek gaixoei erabiltzen dute zentroan astero egiten diren tailerretan.

2. KULTURA ARDATZA: publiko orokorrari zuzendutako jarduerak dira. Helburua da gaixotasunaren inguruan sentsibilizatzea eta gaixotasuna normalizatzea, ardura duten erakundeek alzheimerra duten pertsonei eta haien senideei eskainiko dizkieten prestazioak eta zerbitzuak hobetzeko lehen urrats gisa.

Jarduera DANTZAGUNEA zerbitzuarekin (Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzua, dantzaren esparruan ikasteko eta sortzeko prozesuak bultzatzen dituena) lankidetzan egiten da, eta KUTXA FUNDAZIOAREN babesa jasotzen du jardueretako batzuk egiteko.

2017. urtean, dantzako eta musikako ikasleei zuzendutako Invisible Beauty programa pedagogikoaren barruan, MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia sartu zen proiektuko partaide gisa, eta, harrezkero, topaketak Musikene auditorioan eta Dantzagunean egiten dira.

Gaur egun, jarduera hauek egiten dira urtean INVISIBLE BEAUTY programaren barruan:

- 10 topaketa urtean, 90 minutukoak.
- 6 mugimendu tailer urtean, 60 minutukoak.
- Aurretiazko 5 bisita urtean, 20 minutukoak.
- Proiektu pedagogikoaren garapena MUSIKENeko eta CSDMA dantza kontserbatorioko ikasleekin.
- Proiektuari eta gaixotasunari buruzko dokumental bat egitea eta zabaltzea.

- Dantza produkzio baten estreinaldia antzokian; gaixoak eta haien senideak gonbidatzen dira, hiriko kultura jardueretan integratzeko helburuarekin.
- Gizarteratzeko topaketak eta mahai inguruak eta/edo proiektu sozialak.

Proiektua nazioartean ezagutarazteko jarduerak ere eskaintzen dira.

2019. urteaz geroztik, proiektua beste herrialde batzuetan (hala nola Costa Rican eta Mexikon) ezartzeko prozesua hasi da, 2020an garatzeko. Helburua da proiektua beste dantza konpainia batzuei eskaintzea, beren herrietan garatu ahal izan dezaten.

Halaber, harremanak ezarri dira Australiarekin eta Kanadarekin, besteak beste.

Horren ondorioz, eragina eta onuradunen kopurua nabarmen handitu dira.

1. Erakunde sustatzaileak

AFAGI: Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsonen Elkarteak.

AI DŌ PROJECT: Iker Arruek zuzendutako dantza konpainia.

Laguntzaile nagusiak: GIPUZKOAKO DANTZAGUNEA eta MUSIKENE.

Babesleak: KUTXA FUNDAZIOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA eta EUSKO JAURLARITZA.

Beste laguntzaile batzuk: CND/INAEM, CND COSTA RICA, Donostiako Udala, Hondarribiko Udala.

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

Tailerrak eta topaketak: alzheimerra duten pertsonak

Elkarteetarako bisitak: alzheimerra duten pertsonak eta proiektuan parte hartzen duten artistak

Programa pedagogikoa: musika eta dantzako ikasleak

Topaketa irekiak: publiko orokorra, eremu soziosanitarioko erakundeak eta unibertsitate ingurunea

4. Lurralde eremua

Gipuzkoa

5. Egoera

Amaituta

6. Etiketak

Kultura, dementziak, alzheimerra, artea, aniztasuna, sentsibilizazioa

7. Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Alzheimerra duten pertsonen memoria fisiko, musikal eta emozionala estimulatzea musikaren, mugimenduaren eta dantzaren bidez.

TAILERREN ETA TOPAKETEN HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Ahal den neurrian, alzheimerren endekapen ondorioak atzeratzea.
- AFAGIko psikologoei tresna berriak eskaintzea, zentroan astero egiten duten lanean txerta ditzaten.
- Kolektibo txiki hori kultura bizitzan berriz txertatzea.
- Gaixotasunaren agerikotasuna eta normalizazioa sustatzea.
- Proiektu pedagogikoaren bidez, musika eta dantzako ikasleei interpretatzaile tradizionalarenaz bestelako lan aukera bat eskaintzea.

PROIEKTUAREN EPE ERTAINERAKO HELBURUAK:

- Urtean gutxienez 10 topaketa egitea.
- Proiekturako eta alzheimerra duten pertsonentzat onuragarriak izan daitezkeen laguntzaile berriak txertatzea (beste diziplina batzuetako erakundeak eta artistak).
- Proiektuak gizartean duen eragina handitzea eta alzheimerren eremuko Espainiako, Europako eta munduko gainerako erakundeekin aliantza berriak sortzea.
- Gaixoei tailerretan parte hartzearen ondorioz lortutako aldagairik esanguratsuenetan izan diren emaitzak erregistratzea eta eragina ebaluatzea.

8. Metodologia

1. TAILERREN ARDATZ NAGUSIA Alzheimerra duten pertsonekin egiten diren jarduerak dira, ateak itxita egiten dira eta haien gaitasun fisikoak, musikalak eta emozionalak estimulatzea dute helburu, ahalik eta luzaroen mantentzeko.

Lau jarduera hauek egiten dira:

- Mugimendu tailerrak. 60 minutuko saioak dira eta AFAGIn egiten dira. Bertan, geroago topaketetan errepikatuko diren ariketak lantzen dira. Bi tailer egiten dira topaketa bat egiten den bakoitzean.
- Aurretiazko bisitak. 20 minutuko esku hartzeak dira, eta AFAGIn egiten dira, proiektuan parte hartzen duten pertsonen eta alzheimerra duten pertsonen artean lehen hurbilketa bat egiteko. Lehen hurbilketa hori topaketen aurreko

egunetan egiten da. Aurretiazko 5 bisita egiten dira topaketa bat egiten den bakoitzean.

- Programa pedagogikoa. Musika eta dantzako ikasleei zuzendua. Gizarte egoera ahuleko talde batekin (kasu honetan, alzheimerre duten pertsonen taldearekin) harremanetan jartzeko esperientzia eskaintzen du. Bi helburu hauek ditu: ikasleei dantza konpainia profesional batek nola lan egiten duen erakustea eta interpretatzaile tradizionalarenaz bestelako lan aukera bat eskaintzea. Topaketa prestatzeko behar diren hiru asteetan egiten da lan ikasleekin.
- Topaketak. Ardatz nagusiko jarduera nagusia da. Jarduera horretan, proiektuan parte hartzen duten guztiak sartzen dira: gaixoak, dantzari profesionalak, musika eta dantzako ikasleak, erakunde laguntzaileetako koordinatzaileak eta AFAGIko espezialistak. Topaketetan, aurreko astean mugimendu tailerretan egindako ariketez gain, interpretatzaileek haien premietara egokitutako eta aldi horretarako sortutako hainbat dantza pieza eskaintzen dituzte.

2. KULTURA ARDATZA. Publiko orokorrari zuzendutako jarduerak dira. Helburua da gaixotasunaren inguruan sentsibilizatzea eta gaixotasuna normalizatzea, ardura duten erakundeek alzheimerre duten pertsonen eta haien senideei eskainiko dizkieten prestazioak eta zerbitzuak hobetzeko lehen urrats gisa. Jendaurrean eskaintzen diren jardueren barruan, TOPAKETA IREKIAK nabarmentzen dira. Topaketa horietan, dantzaren bidez alzheimerre duten pertsonekin egiten den lana eta erabiltzen den metodologia erakusten da.

Topaketa bakoitzaren ondoren, balorazio bat egiten da AFAGIko espezialistekin batera, eta, ondoren, hurrengo topaketarako parametroak zehazten dira (erritmoa, egitura eta edukia).

9. Alderdi berritzaileak

Invisible Beauty ikuspegi berritzailea duen proiektua da, eta, aldi berean, psikoestimulazio kognitiboaren eremuko tresna berriak eskaintzen dizkie espezialistei.

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Psikologiako doktore Marta Arruek Invisible Beauty proiektuan sortutako ikus-entzunezko materialaren zati handi bat txertatzen du bere irakaskuntza materialean.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Ebaluazio metodoa behaketa da. Behaketaren ondoren, balorazio bat egiten da elkarrekin.

Tailerretan, AFAGIko psikologoek eta espezialistek erabiltzaileen erreakzioak behatzen dituzte. Topaketa bakoitzaren ondoren, tailerraren atal bakoitzak bertaratuengana eragindako erreakzioei buruzko balorazio bat egiten da espezialista horiekin. Behatutakoaren arabera, edukia, erritmoa edo egitura aldatzen da, eta hurrengo tailerrean aztertuko diren parametroak zehazten dira.

Topaketa bakoitza bakarra da, eta eskaintzen diren elementuak eta informazioa desberdinak dira tailer bakoitzean. Era horretan, AFAGIko espezialistei informazio berria etengabe eskaintzeaz gain, proiektuan parte hartzen dutenen erreferentzia horietara guztietara iristea lortzen da.

Tailerraren ondorengo asteetan, AFAGIko espezialistek tailerrez eta dantzari eta musikariekiko interakzioaz zer gogoratzen duten galdetzen diete gaixoei modu informalean, jakiteko jardueraren zer alderdik izan duten eraginik handiena. Senideek ere parte hartzen dute ebaluazioaren etapa horretan. Tailerretan parte hartu ondoren gaixoengan ikusi dituzten erreakzioei buruz galdetzen zaie, modu informalean. Gaixoek tailerretan parte hartzearen ondorioz lortutako aldagairik esanguratsuenetan izan diren emaitzak erregistratzen dira.